

> artikulua**1** bat aldizkarian argitaratzeko irizpideak

BAT aldizkarian artikulua argitaratzeko eskaerarekin batera, egileek ziurtatuko dute euren lanek ondoren zehazten diren irizpideak betetzen dituztela.



> ARTIKULUAREN GAIA

- Euskal soziolinguistikaren esparruko ikerketa-lana
- Euskararen biziberritze-prozesura hurbiltzen diren beste diziplinetako ikerketa-lana (antropologia, psikologia, komunikazioa e.a.)
- Euskararen normalizazioa eta hizkuntza-plangintza
- Euskal soziolinguistika saileko saiakera
- Nazioarteko soziolinguistikaren arloko ikerketa

> HIZKUNTZA

- Artikuluak euskaraz argitaratuko dira, eta horrela bidaltzea eskatuko da.
- Artikuluaren laburpena eta hitz gakoak euskaraz eta ingelesez argitaratuko dira. Egileak aukera izango du atal horietako ingeleseko itzulpenak igortzeko; gainerakoan editore-taldea arduratuko da eginkizun horretaz.

> ZUZENKETA

Euskara batuaren arauen arabera zuzenketa ortografikoa errespetatuz (Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzea gomendatzen da).

> HIZKUNTZA EGOKIA

Ez da onartuko idazkera diskriminatzailearik. Ezin da kontzeptu sexistarik edota arrazistarik erabili.

> LUZERA

25.000-40.000 karaktere bitartekoa, zuriuneak barne.

> EGITURA

- Izenburu-orria:
 - Artikuluaren egile guztien informazioa: izena eta bi abizenak, afiliazioa(k) eta helbide elektronikoa(k)
 - Laburpena: gehienez 1000 karaktere.
 - Hitz-gakoak: 4-5 hitz.
- Testu nagusia (azpi-atalak eta izenburuak adierazi):
 - Sarrera
 - Marko teorikoa edota testuingurua
 - Metodologia
 - Emaitzak
 - Ondorioak
- Eskertzak (Beharrezkoa bada)
- Bibliografia
- Eranskinak (Beharrezkoa bada)

> TIPOGRAFIA

Letra tipoa: Testua 1,5 lerroartearekin; testu-gorputza 12 puntukoa eta letra-tipoa, Arial, Times New Roman, Calibri...

> ILUSTRAZIOAK

- Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA bezala emanda.
- TAULAK, IRUDIAK eta GRAFIKOAK zuri-beltzekoak.
- TAULAK, IRUDIAK eta GRAFIKOAK izendatuta eta kronologikoki zerrendatuta.
- Kasu guztietan iturria adierazita.
- Irudien kasuan jpg edo tankerako formatuan.
- Grafikoen kasuan jatorrizko formatua ere bidali (Excel...)

> OIN-OHARRAK

Ohar bakoitza oin-ohar gisa gehitu, 10 puntuko testua osatuz.

> ESTILOA: ERREFERENTZIA, AIPUAK ETA BIBLIOGRAFIA

Chicago 17. Egilea - Urtea estilo-ereduari jarraituko zaio

> TESTUKO AIPUAK

- **Aipu laburra denean:** testuan bertan komatxo artean, eta egilearen erreferentzia parentesi artean.

... lehenago aipatu izan dugun moduan, "Gazteen hizkuntza-konpetentzia hobetzeko eta legez markatuta dauden helburuetara iristeko, ezinbestekoa izango da erabilera" (Amonarriz 2019, 79).

- **Aipu luzea denean,** hots, lau lerro edo 100 hitz baino gehiago direnean: aparteko paragrafoan, sangriarekin eta komatxorik gabe; puntuazioaren ondoren, egilearen erreferentzia parentesi artean.

Munduko hizkuntza komunitatetako eragile zenbaitekin esperientzia-truketan ari garenean, euskararen ahalegin-aro moderno honetako bost lerro azpimarratzen ditugu, beste alor batzuk gutxietsi gabe, lehen eskema simple moduan: corpora, hezkuntza, hedabideak, kultur sorkuntza eta familia transmisioa. (Sarasua 2013, 311)

- **Egile bakarra denean:** parentesi artean, egilearen abizena eta argitalpen-urtea, bien arteko komarik gabe; aipu literala bada, urtearen ondoren koma eta orrialde-zenbakia: (Zubiaga 2012, 12).
- **Bi edo hiru egile direnean:** parentesi artean, egileen abizenak komaz bereizita; azken egilearen aurretik eta komaren orde. Ondoren, argitaratze-urtea bien arteko komarik gabe; aipu literala denean, urtearen ondoren koma eta orrialde-zenbakia(k): (Suay eta Sanginés 2010, 25-26).
- **Hiru egiletik gora direnean:** parentesi artean, lehen egilearen abizena eta *et al* letra arruntez; aipu literala denean, urtearen ondoren koma eta orrialde-zenbakia(k): (Martí et al. 2005, 43).

> ERREFERENTZIAK (AIPATURIKO OBRAK)

- **Erreferentzia bibliografiko sarrera** guztiak espazio bikoitzarekin bereiziko dira.
- **Erreferentzia bibliografiko sarrerak** espazio sinplean eta alderantzizko koskarekin (koska frantsesa) idatziko dira.
- **Liburuaren egilea bakarra denean:** egilearen abizena(k) eta izen osoa. Argitaratze-urtea. *Liburuaren izenburua*. Argitalpen hiria: argitaletxea.

Esteban, Mari-Luz. 2017. *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Susa-Lisipe.

- **Liburuaren egileak hainbat direnean:** lehen egilearen abizena(k) eta izen osoa, ondorengo egileak izena eta abizenen ordenan. Egileak komaz bereizita, baina azken egilearen aurrean eta komaren orde. Argitaratze-urtea. *Liburuaren izenburua* (letra etzanez). Argitalpen hiria: argitaletxea.

Altuna, Olatz eta Asier Basurto. 2013. *Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- **Liburu kolektibo baten kapitulua denean:** egilearen abizena(k) eta izen osoa. Argitaratze-urtea. "Kapituluaren izenburua". In *liburuaren izenburua* (letra etzanez), argitalpenaren arduraduna(k), kapituluaren orrialde-zenbakiak. Argitalpen hiria: argitaletxea.

Casenave, Jon eta Argia Oltzomendi. 2021. "Euskara oinarri eta ardatz Iparraldeko euskarako irakaslegaien formakuntzan: diagnostiko baten lehen urratsak". In *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*, Leire Diaz-de-Gereñu, Ibon Manterola eta Ines M. Garcia-Azkoaga argitaratzaileak, 223-235. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- **Artikuluak paperezko aldizkarian:** egilearen abizena(k) eta izen osoa. Argitaratze-urtea. "Artikuluaren izenburua". *Aldizkariaren izena* (letra etzanez), bolumena, zenbakia: orrialde-zenbakiak.

Zalbide, Mikel. 2015. "XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan". *Hermes* 50: 10-29.

- **Artikuluak aldizkari elektronikoan:** egilearen abizena(k) eta izen osoa. Argitaratze-urtea. "Artikuluaren izenburua". *Aldizkariaren izena* (letra etzanez), bolumena, zenbakia: orrialde-zenbakiak. Azken-kontsulta data (ez da ezinbestekoa). DOI zenbakia edo URL-a –(DOI-a lehentasunez)–.

Hernández García, Jone Miren eta Marta Luxán Serrano. 2024. "Hiztunaren genero nahasmendua. Hizkuntza gutxituak, euskara eta generizazio prozesuak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 130: 79-105. DOI: 10.55714/BAT-130.3
